# Udal eta foru hauteskundeetako emaitzak 'anboto.org' webgunean

**M28** • Udal eta foru hauteskundeetarako kanpaina amaituta, interesgune nagusia maiatzaren 28ko emaitzetan dago ipinita. ANBOTOk hauteskunde gaueko emaitzen berri emango du 'anboto.org' atarian eta bere sare sozialen bitartez. Beheko QR kodean aurkitu daiteke informazio guztia. • **2-3**

## Gehigarria

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

# Hauteskunde kanpaina amaituta, alderdi guztiak maiatzaren 28ra begira daude

Hauteskunde gaueko emaitzak *anboto.org* webgunetik zuzenean ezagutu ahal izango dituzte irakurleek

Mireia Elkoroiribe eta Elixabete Etxanobe EAJko ordezkari nagusiekin eta Durangaldeko zerrendaburuekin inguratuta.

Iker Casanova, Ima Garrastatxu eta Arnaldo Otegi.

Jorge Varela eta Julian Ríos Herriaren Eskubidea alderdiko lokalean.

Denis Itxaso, Jesica Ruiz eta Teresa Laespada.

**DURANGALDEA • JONE GUENETXEA**

Intentsitate handiko aste bi izan dira. Alderdi guztiak buru-belarri murgildu dira hauteskunde kanpainan. Ohiko kanpainetako buzoneoa, megafonia, mitinak, aurkezpenak, prentsa deialdiak... Baina 2023ko udal eta foru hauteskundeek berezitasunen bat izan badute, alderdiek komunikazio arloan egin duten ahalegina izan da. Sare sozialetan beste gudu zelai bat aurkitu dute.

### Emaitzak ANBOTOn

Maiatzaren 28ko gauean jakingo dira udal eta foru hauteskundeetako emaitzak. Kasu askotan, berehala jakingo da udal gobernuetara nortzuk helduko diren hurrengo lau urteetarako. Beste kasu batzuetan, ostera, zein aliantza egiteko aukera dagoen jakingo da. Hori guzti hori *anboto.org* webgunean zuzenean jarraitu ahal izango da. Gainera, Tokikomeko hedabideekin batera landuriko tresna bati eskerrak, datu ofizialak momentuan bertan agertuko dira ANBOTOren atarian. Arretaz jarraitu ahal izango dira Durangaldeko hamahiru herrietako emaitzak. Izan ere, ikusteko dago zer gertatuko den Durangon: EH Bilduk gobernuan jarraitu ahal izango du Podemos eta Herriaren Eskubidea banatuta? PPk ordezkaritza berreskuratuko du? EAJk aurreko legegintzaldian galdurikoa berreskuratuko du?

Bestalde, Abadiñon ere lehia bizia izango da. Abadiñoko Independienteen alderdia deseginda, Jose Luis Navarro berriro eszenatoki politikora azaldu da Abadiñoko Independente Berriak alderdiagaz. Eta Independienteetan zeuden Javi Crespo eta Patxo Campo alderdi sozialistaren zerrendan daude. Podemos ere aurkeztu da oraingoan.

Gainerako herrietan ere ikusmina dago zein alderdi nagusituko den jakiteko. Herri txikietan boto apur batzuek baldintzatu dezakete emaitza.

### EAJ Durangon eta Zornotzan

Alderdirik alderdi errepasoa eginda, EAJk Durangoko Ezkurdin egin zuen kanpainako ekitaldi nagusia, joan zen barikuan. Alderdiko buruak eta Durangaldeko ordezkariak egon ziren bertan. Iñigo Urkullu lehendakariak, Andoni Ortuzarrek, Elixabete Etxanobe ahaldun nagusi izateko hautagaiak eta Mireia Elkoroiribe Durangoko alkategaiak parte hartu zuten ekitaldian. Jeltzaleek Gaitasun Handiko Osasun Zentroa aldarrikatu zuten Durangoko ekitaldian. Bestalde, astelehenean, EAJk hauteskunde kanpainako mitina egin zuen Zornotzan. Ainhoa Salterain alkategaia, Elixabete Etxanobe eta Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentea egon ziren ekitaldian. Ainhoa Salterainek azaldu zuen "proiektuak sortzen" jarraitu gura duela, Zornotzak "bizitzeko herririk onena izaten jarraitu dezan".

### EH Bildu Durangaldean

EH Bilduk ekitaldi nazionala egin zuen astelehenean Durangon. Agerraldi horretan izan ziren, besteak beste, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile orokorra, Iker Casanova Bizkaiko zerrendaburua eta Ima Garrastatxu Durangoko alkategaia. Baita Durangaldeko EH Bilduko alkategai ugari ere. "Orain lau urte lorturiko aldaketa egonkortzea da bidea", aldarrikatu zuen Ima Garrastatxu EH Bilduko alkategaiak. Koalizio subiranistak Zaldibarren eta Abadiñon egingo ditu kanpainaren amaierako ekitaldiak, gaur. Iker Casanova, Edurne Bideguren eta Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkategaia egongo dira udaletxeko plazan, 18:00etan. Bestalde, Abadiñon, Oskar Matutek eta Mikel Urrutia Abadiñoko alkategaiak parte hartuko dute, Pinoko plazan, 19:00etan.

### Herriaren Eskubidea

Durangon, Herriaren Eskubidea bere aldetik aurkeztuko da hau-

teskundeetara, Elkarrekin Podemosetik bereiztuta. Plataforma herritarrak 10 proposamen aurkeztu ditu Durango "bizi gura izateko lekua" izan dadin. Alderdi independenteko Jorge Varela zerrendaburuak Durango "berriro ere eskualdeko erreferentzia" izatea gura dutela azpimarratu du. Alokairu sozialera bideraturiko 500 etxebizitza egitea edo laguntza psikologikoa eskaintzeko bonuak kaleratzea dira, besteak beste, alderdiak egindako proposamenetariko batzuk.

**Elkarrekin Podemos**

Joan zen astean, Elkarrekin Podemosek ekitaldia antolatu zuen Durangon. Eskualdeko hautagaiez gainera, Miren Gorrotxategik eta Isa González legebiltzarkideak ere egon ziren ekitaldian. David Hernández Durangoko alkategaiak gidaturiko ekitaldian, pandemiak sorturikoari buruz berba egin zuten. “Zerbitzu publikoaren garrantzia gogoraraztera etorri zitzaigun”, adierazi zuen Hernandezek. Izan ere, “txarto emanda datozkigunean, gu babesteko dagoen gauza bakarra zerbitzu publikoak dira”, azpimarratu zuen. Ildo horretatik, "eskualdeko ospitale baten alde eta Durangoko lehen mailako arreta indartzearen alde” lan egingo dutela azpimarratu zuen Hernandezek.

**PSE-EE**

Jesica Ruiz Durangoko PSE-EEren alkategaia gogor mintzatu zen egungo udal gobernuari buruz, eta hainbat proiekturen inguruan "gezurretan aritzea" eta herritarrei "iruzur egitea" leporatu zion. Trenbide zaharraren inguruko proiektua eta Plateruenekoa aipatu zituen sozialistak. Ekitaldian, Denis Itxaso Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak eta Teresa Laespada Bizkaiko Foru Aldundirako hautagaiak ere parte hartu zuten.

**PP Santa Anan**

Alderdi Popularrak ekitaldia egin zuen Santa Anan, astelehenean. Carlos García Durangoko alkategaiagaz batera alderdiko beste ordezkari batzuek ere parte hartu zuten; tartean, Carlos Iturgaitzek. Garcíak azaldu zuenez, Zero Delinkuentzia Plana ezarri gura du Durangon. Horretarako hartuko lukeen neurrietariko bat udaltzaingoaren lantaldea handitzea litzateke, 45 udaltzain izatetik 70 izatera pasatuta. Gai horren inguruan, udalak segurtasunari buruzko inkestak "faltsutu" egiten dituela salatu zuen PPko alkategaiak.

David Hernández eta Miren Gorrotxategi Elkarrekin Podemoseko kideekin batera, Durangon.

Erdian, Carlos García eta Carlos Iturgaitz, PPko kideekin batera astelehenean Santa Anan egindako ekitaldian.

# Dantzaldiak, pastoral bat eta emakume sortzaileen azoka Euskal Jaietan

Durangoko Euskal Jaiak ekainaren 2tik 11ra egingo dira. Ikastetxeek eta elkarteek udalagaz elkarlanean antolatu dute egitaraua. 22 ekitaldi batu dituzte aurtengo edizioan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Aurkeztu dute Euskal Jaien XXVI. edizioa. Hogei bat elkarte eta ikastetxek udalagaz lankidetzan antolatu dute egitaraua. Guztira, 22 ekitaldi batu dituzte programan. Aurtengo nobedadeen artean honako hauek daude: San Antonio ikastetxeko ikasleek taularatuko duten *Loraldia Eskola* pastorala eta Dinagu Euskal Herriko emakume sortzaile eta ekoizle txikien azoka. Azken honetan 50 bat sortzailek parte hartuko dute.

Bestalde, Durangaldeko artisten elkarteak umeen eskolarteko lehiaketaren sari banaketa egingo du. Amaia Del Amo elkartekideak adierazi du "oso pozik" daudela lehiaketa izaten ari den bilakaeragaz. Lehenengo edizioan, orain hamabi urte, 350 ikaslek parte hartu zuten, eta kopuru horrek gora egin du. Aurten, 1.050 parte hartzaile daude. 19 sari banatuko dituzte guztira. Egitarauko kontzertu, dantzaldi eta kultur ekitaldiak *anboto.org* atarian kontsultatu daitezke.

Jeiki Hadi taldeak dantzaldia egingo du ekainaren 3an, Ezkurdiko kioskoan. **JEIKI HADI.**

L'Atelierreko kideen talde argazkia, Avilan.

# L'Atelierreko dantzarien garaipen sorta Avilan

Dantza eskolako kideek Vive tu Sueño txapelketan parte hartu eta emaitza bikainak lortu zituzten joan zen asteburuan

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Joan zen asteburan, L'Atelier dantza eskolako kideak Avilan (Espainia) izan ziren Vive tu Sueño txapelketan parte hartzen. Oiane Azkonizaga L'Atelierreko zuzendariak azaldu duenez, "esperientzia ahaztezina izan da ikasleentzat, eta baita euren familientzat ere". Urrezko 12 domina, zilarrezko 4 eta brontzezko 2 lortu zituzten. Denboraldiko hurrengo hitzorduak Zallan (Bizkaia) izango dituzte . Bestalde, uztailaren 19an eta 20an Global Dance Open txapelketan parte hartuko dute, berriro ere Avilan, 40 herrialdetako dantzariekin batera.

# Durangoko haurrek Jolas Eguna ospatuko dute ekainaren 3an, "umeek kalean olgetan egiteko duten eskubideagaz" bat eginda

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko umeek, Umeen Kontseiluaren bitartekaritzagaz eta Durangoko Udalaren laguntzagaz, Jolas Eguna ospatuko dute ekainaren 3an. Asteon, Landako, Nevers, San Antonio, Kurutziaga, Zabalarra eta Jesuitak ikastetxeetako umeek prentsaurrekoa eman dute jai horren nondik norakoak azaltzeko. Laiak, Aimarrek, Norak, Iraidek, Lukenek, Paulek eta Elenek egin dute agerraldia. Aurreratu dutenez, ginkana baten bueltan antolatu dute ospakizuna: "Saskibaloia, futbola edo errugbia landu barik, aproposagoa ikusten genuen ginkana bat antolatzea. Aproposagoa da denok dibertitzeko", azaldu dute. Ginkana horretan, besteak beste, "sokatira, oztopoen zirkuitua, laser jokoa, asmakizunak eta txirloak" batuko dituzte.

Jolas Eguna 16:00etan hasi eta 20:00etan amaituko da. Herriko hainbat puntutan egingo dituzte ekintzak: Ezkurdin, Andra Mariko elizpean, Andra Mari kalean, Joxemiel Barandiaran kalean eta Zeharkalean. Euria bada, Landako Gunean. "Parte hartzea denentzat zabalik dagoen arren, aldez aurretik izena ematea gomendatzen da. Herriko ume guztiak animatzen ditugu Jolas Eguna gugaz ospatzera", esan dute haurrek. Jolas Eguna maiatzaren 28ko testuinguruan antolatu dute, Jolasaren Nazioarteko Egunaren harira, hain zuzen ere.

2021eko irailean ospatutako Jolas Eguna. **DURANGOKO UDALA**

anboto
Gertuko Koop S., Gizarte Ekimenekoa
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
2023ko maiatzaren 26a
21. urtea - 937. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 12.000 ale

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00225

LAGUNTZAILEAK
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Psikobonuak ekainaren 1ean ipiniko dituzte eskuragarri

Bonuekin 14tik 35 urtera arteko durangarrak artatuko dituzte. Saio bakoitzaren %90 udalak finantzatuko du

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Udalak iragarri du ekainaren 1etik aurrera ipiniko dituela salgai psikobonuak. Data horretatik aurrera, 14tik 35 urtera arteko gazte durangarrek 2.222 bonu izango dituzte eskuragarri psikologoarenera modu merkeagoan joateko. Gazte bakoitzak 10 bonu erosi ahal izango ditu gehienez.

Psikobonuen programa hau Durangoko Udalak eta Bizkaiko Psikologia Elkargoak landu dute elkarlanean. Programari eskerrak, gazteek urtean laguntza psikologikoko 10 saio pertsonalizatutara joateko aukera izango dute. Saio bakoitzaren prezioa 50 eurokoa izango da. Psikobonuei eskerrak, gazteek 5 euro baino ez dituzte ordainduko. Gainerako 45 euroak udalak ordainduko ditu. 100.000 euroko diru poltsa prestatu du horretarako.

Psikobonuak erosteko, Herritarrentzako Arreta Zentrora eta Turismo Bulegoan dagoen kutxa-

Psikobonuak HAZen eta Kurutzesantun eskuratu ahal izango dira.

# "V. urteurrena ospatzeko jaiagaz, eskerrak eman gura dizkiegu gure bezero, lagun eta Zornotzako herrikideei"

Zornotzako Xiberu tabernak bere bosgarren urteurrena ospatu zuen atzo. Gaur musika emanaldia izango dute

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Araban bagare, Gipuzkoan bagera eta Xiberun... Zornotzako Xiberun, behintzat, badira. Xiberu taberna 5 urteko ibilbidea ospatzen dabil egunotan. Atzo luntx berezi bat eta Ostabe taldearen emanaldi akustikoa izan zituzten. Gaur, bestalde, Pancho Balbuenaren kontzertua izango dute, 19:30ean. Txabi Emaldia arduradunak honela azaldu du urte hauetako bilakaera: "Izurri bat izan dugu. Ibilbide arraroa izan da, kontuan hartuta itxierekin, murrizketekin eta ganoraz lan egin ezinda ibili garela. Baina hori kenduta, balantzea oso positiboa da. Oso pozik gaude", dio

Hain zuzen ere, bilakaera positibo horren erakusle da Xiberuk Zornotzako herritarren artean lortu duen lekutxoa: "Lehenengo egunetik argi izan dugu tabernak topaleku izateko funtzioa ere bete behar zuela. Herritar denen topaleku izan gura dugu. Berdin kirol elkarteen edo mugimendu sozialen kasuan ere. Iruditzen zait zornotzarrek hartu-eman sozial horiek garatzeko lekutxo bat topatu dutela hemen", azaldu du Emaldiak. Alde horretatik, bosgarren urteurrena ospatzera gonbidatu ditu herritarrak: "Urteurren honegaz gure esker ona adierazi gura diegu gure bezeroei, lagunei, egunero zein noizean behin gugana datozenei", amaitu du Emaldiak.

Xiberu tabernako langileak, iaz egindako ospakizun batean.

# Amaia Araujo ume zornotzarraren aldeko zozketa erraldoia eta *agility* erakustaldiak zapatu honetan

Iurretako Indarkan Agility klubeko kideek jaialdi solidarioa egingo dute Jauregibarriako parkean, 11:00etan

**ZORNOTZA • E.H.**

Hile batzuk joan dira Iurretako Indarkan Agility klubeko kideek kanpaina solidario bat hasi zutenetik Amaia Araujo ume zornotzarrari laguntzeko. Bada, zapatu honetan, kanpaina horri loturiko jaia ospatuko dute Jauregibarriako zelaietan. 11:00etan, Indarkan klubeko eta beste klub batzuetako txakurren *agility* erakustaldia egingo dute. 12:00etan, txakurren edertasun lehiaketa herrikoia egingo dute. Txakurrik dotoreenak, sinpatikoenak eta 12 urtez azpiko aurkezlerik onenak sarituko dituzte. Azkenik, zozketa erraldoiaren txanda izango da. Hile hauetan guztietan, Indarkaneko kideek eragile, elkarte eta denden eskutik modu solidarioan jasoriko produktu eta gauza guztiak zozkatuko dituzte. Azken ekitaldi hau 13:00etan egingo dute.

### Laguntzea helburu

Kanpaina honek helburu nagusi bat dauka: dirua batzea Amaia Araujo Martín ume zornotzarrak behar dituen osasun terapiak ordaintzeko. Araujok gaixotasun arraro bi ditu: artogriposi anizkoitz kongenitoa eta bihurdura-distonia. Terapia espezializatuak, ortesiak eta Bartzelonako Sant Joan de Déu ospitalerako joan-etorriak direla eta, Araujoren familiak gastu ekonomiko handiak ditu. Iurretako Indarkan Agility klubeko kideek antolatu dituzte bai kanpaina solidarioa eta baita zapatuko jaialdia ere.

Amaia Araujo bere gurasoekin.

## Maiatzaren 29an zabalduko dute umeen danborradan inskribatzeko epea

**ZORNOTZA • E.H.**

Zornotzako umeen danborrada uztailaren 26an egingo da, jaietako Santa Ana egunean. 5etik 13 urtera bitarteko umeek parte hartu ahalko dute, 2018tik 2010era artean jaiotakoek. Izena emateko epea ekainaren 9ra arte egongo da zabalik, Zelaieta zentroan edo udalaren web orrian. Inskripzioan izena eta jaioteguna, eta arduradunaren telefono zenbakia adierazi beharko dira. Entsegu egunen erdietara joan behar dute gutxienez. Danborrariek ekainaren 27an eta uztailaren 4an, 11n eta 18an egingo dituzte entseguak. Fusilariek uztailaren 4an,11n eta18an. Kantinera eta kantineroek uztailaren 13an, 17an eta 20an.

# Gure Zirkua Elorrion egongo da astebetez uztailaren 7tik 16ra

Elorrioko Udalak hainbat ekintza antolatu du uda honetarako: Musikaire, San Joan ospakizuna, trikitilari gazteen txapelketa eta azoka ekologikoa, besteak beste

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Konturatu orduko udan sartuta egongo gara eta elorriarrek ekitaldiz beterik izango dute agenda aurten, uda kulturaz lepo dator-eta Elorriora. Horren adibideetariko bat Gure Zirkua da. Aurten, astebete pasatxoz, Euskal Herriko artistarik trebeenak Ganondo parkean ipiniko duten karpan egongo dira. Gure Zirkua uztailaren 7tik 16ra egongo da eta sarrerak euren webgunearen bitartez eskuratu daitezke; baita uztailaren 3tik aurrera leihatilan ere.

Horren aurretik, beste zenbait ekintza ere izango da. Udari San Joan ospakizunagaz emango diote hasiera: antzerkiagaz, disko-festagaz, suagaz eta bestelako ekimenekin. Uztailaren 2an, Berrio-Otxoa egunaren barruan, trikitilari gazteen txapelketa eta azoka ekologikoa egingo dituzte. Eta hile horretarako Musikaire ere antolatu dute, hilabeteko asteburuak musikaz eta dantzaz betetzeko. Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek ere bisitatuko dute Elorrio.

Gure Zirkuaren furgoneta eta karpa.

Erdella Mendi Taldeko kideak.

# Erdella Eguna, mendi taldearen 50 urteurrena ospatzeko

08:30ean emango diote hasiera Erdella Egunari, mendi irteeragaz. 14:30ean, bazkaltzeko batuko dira

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Erdella mendi taldeak Erdella Eguna antolatu du maiatzaren 27rako. Egun osoko egitarauagaz, mendi taldearen 50. urteurrena ospatuko dute. 08:30ean emango diote hasiera ekitaldiari, mendi irteeragaz. "Herritar guztiak daude gonbidatuta", azaldu dute antolatzaileek. Ondoren, 11:00etan, Zintzilik emozioen laborategia egongo da, eta 13:30etik 14:30era musika eta dantza, Eingo taldeagaz. 14:30ean bazkaria egingo dute plazan, eta bazkaldu ostean, musikak jarraituko du. Uumeentzako eta nagusientzako emozioen laborategiagaz emango diote amaiera egunari.

# Atxondoko igerilekuan lanak egiten hasi dira, ekainaren 24an denboraldiari hasiera emateko

Igerilkuen kudeaketa eta mantentze-lanak esleitu dituzte. Datozen egunetan taberna esleitzea itxaroten dute

Atxondoko igerilekuak.

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko Udalak ekainaren 24an emango dio hasiera aurtengo igerileku denboraldiari. Igerilekuak zabaldu aurretik, hauek txukuntzeari ekin diote. Udaletik jakinarazi dutenez, igerilekuko edukiontzi bien kanpoaldea konponduko dute, eta baita txarto dauden baldosak ere. Edukiontzi bien kanpoaldeko eremua berritzeari dagokionez, hango lurzorua bere osotasunean berrituko dute. "Gaur egun, lurzoruak kalte handiak eta irristakortasun-arazoak ditu, zoladura txarto dagoelako", azaldu dute. Horregaitik, zoladura hori guztiz ordezkatuko dute. Lanak, guztira, 47.000 eurotan (gehi BEZa) esleitu dituzte, eta ekainaren 24rako amaituta egon beharko dira.

Bestalde, tabernaren kudeaketa eta igerilekuen kudeaketa zerbitzua dagoeneko esleituta daudela jakinarazi dute udaletik. Esleitu duten enpresak kudeatuko ditu instalazioko erabiltzaileen sarbide-kontrola eta sorosleen zerbitzua. Baita igerilekuetako arazketa-sistemen mantentze integrala ere.

### Jubilatuen etxeko taberna

Horrez gainera, aste honetan Atxondoko Udalak jakinarazi du jubilatuen etxeko taberna ustiatzeko kontratua bertan behera uzteko espedientea hasi duela. "Otsailaren 1ean errentamendu kontratua sinatu zenetik errentariak ez du hitzemandakoa bete", azaldu dute udaletik. Beraz, kontratua bertan behera utzi eta zerbitzua lehenbailehen lizitaziora atera gura dutela azaldu dute.

# Udalak Zelaietako eskolako jolastokia eraberrituko du

Bestalde, Zelaieta Eskolako barne-sarbidea berriro urbanizatzea ere aurreikusten du Abadiñoko Udalak

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñoko Udaleko Gobernu Batzordeak ia 200.000 euroko aurrekontu-partida bat zati bitan gordetzea erabaki du Zelaietako eskolako instalazioak inklusibitate eta irisgarritasun-irizpideen arabera hobetzeko.

Alde batetik, ikastetxean jolastoki inklusibo bat egokitzeko lehenengo esku-hartzea datorrean ekainean hasiko da, ikasturtea amaitzean. 24.000 euroko aurrekontua eta 10 eguneko egikaritze-epea izango ditu.

Bestetik, 175.000 euroko partida onartu dute, uda ostean lizitatuko den irisgarritasun-proiektuari ekiteko. Udaletik azaldu dutenez, jarduketaren helburua Zelaieta eskolako barne-sarbidea berriro urbanizatzea da, irisgarritasuna hobetu, desnibelak kendu eta plataforma bakarra osatzeko.

Zelaietako eskolako argazkia.

# Ostalaritza
## gida

***Profesionalik onenak zure zerbitzura!***

### Durango

**AI AMA**
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
**Tel.: 946 232 240**

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

### Abadiño

**ABARKETERUENA**
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
**Tel.: 944 657 790**

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

### Iurreta

**GAUARGI**
Dantzari 4 behea, IURRETA
**Tel.: 944 356 674**
Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

### Zornotza

**XIBERU**
Zezilia Gallartzagoitia, 9
**Tel.: 946181758**
Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

# Napoleonen kontra borrokatu zen Longa jeneralaren historia ezagutzeko aukera, Mallabitarrok Egina irteeran

Longa jaio eta hazi zen baserria bisitatuko dute eta aditu batek baserriaren eta haren historiaren berri emango du

Mallabitarrok Egina izeneko irteera bateko irudia.

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Berbalagunek antolatzen duen Mallabitarrok Egina ekimenaren barruan, beste irteera bat egingo dute zapatu honetan. Orain arte egin duten zortzigarrena izango da.

10:00etan ipini dute ordua, udaletxe aurrean, petril izeneko aparkalekuan. Lehenengo, frontoiaren atzeko aldean dauden udal ortuak bisitatuko dituzte, eta hango dinamika eta funtzionamendua ikusiko dituzte.

Ondoren, kotxea hartu eta Trabakura joango dira, hantxe hasiko delako ekimenaren bigarren zatia. Oinez, Gerea auzotik zehar, Longa Nagusia landetxera joango dira eta baserri haren eta han bizi izan ziren hainbat lagunen historia ezagutzeko aukera emango dute. Gaian aditua den Eneritz Aranburuk emango ditu azalpenak. Baserri hartan hazitako pertsonaiarik esanguratsuena Francisco Tomas Antxia Longa da (1783-1831). Independentziako Gerra lez ezagutzen den gatazkan Napoleonen eta haren indarren kontra egindako erasoaldiengaitik egin zen ezagun. Hasieran, ehun bat laguneko gerrilla baten buru zela, Napoleonen konboiei enboskadak prestatzen zizkieten Bizkai, Gipuzkoa, Araba nahiz Burgos inguruan.

***Napoleonen kontrako guduetan izan zuen parte hartzeagaitik jeneral izendatu zuten***

Apurka, bere indarrak handitzen joan zen, benetako unitate militar bat bihurtu arte. 1813an, Gasteizko gudu ezagunean parte hartu zuen, Wellington dukearen aginduetara. Ondoren, beste gudu batzuetan ere aritu zen. Bere lorpenengaitik jeneral izendatu zuten.

## Udalekuetan izena emateko epea zabalik Mallabian, ekainaren 2ra arte

**MALLABIA • J.D.**

Satxibu aisialdi taldeak kudeatuko dituen udalekuetan izena emateko epea zabalik dago Mallabian. Ekainaren 2a da horretarako azken eguna, eta eskaera orriak kultur etxean eskuratu daitezke.

***Udalekuak ekainaren 26tik uztailaren 21era izango dira; 4tik 12 urtera artekoei zuzenduta daude***

Ondoren, ekainaren 22an, 18:00etan, batzar bat egingo dute parkeko aterpean, udalekuei buruzko xehetasunak emateko. Informazio gehiago *satxibu@hotmail.com* helbidean eskuratu daiteke.

Aurtengo udalekuak ekainaren 26tik uztailaren 21era egingo dituzte: astelehenetik barikura, 09:30etik 13:00etara. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeei zuzenduta daude, 4tik 12 urtera artekoei.

# Mañariko, Otxandioko eta Galdakaoko abesbatzen kontzertua, Mañariko elizan

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolaturiko zirkuituaren barruan emango dute biharko saioa

**MAÑARIA • J.D.**

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolaturiko kontzertu zirkuitua Mañarira helduko da zapatu honetan. Mañariko Kirikiño, Otxandioko Oihandi eta Galdakaoko Maximo Morenoren abesbatzek parte hartuko dute, Mañariko elizan, 20:00etan.

Aurtengo zirkuitua 55 kontzertuk osatzen dute eta azken txanpan sartuta dago. Bizkaiko herrien artean, Zornotzan eta Otxandion ere eman dituzte kontzertuak. Otxandioko emanaldian, zapatuko hiru abesbatza horiek parte hartu zuten.

**Auzolana, Aldegoienan**

Abesbatzen kontzertuaz gainera, beste jarduera bat ere badago Mañarian. Zapatuan auzolanerako deia egin dute. 08:00etan ipini dute ordua, Mañariko plazan, eta Aldegoiena auzo ingurura joango dira. Ekainaren 3an, Aldebaraietan eta Arruetan ibiliko dira.

Jasokundeko Andra Mariaren elizan izango da kontzertua.

## Otxandioko Pasealeku nagusien elkarteak egunpasa antolatu du Medina de Pomarrera

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandioko Pasealeku nagusien elkarteak egunpasa antolatu du ekainaren 8rako, Burgos probintzian dagoen Medina de Pomar herria eta bere inguruak ezagutzeko. Lehenengo, hirigune historikoa eta Santa Clara monasterioa bisitatuko dituzte.

***Hirigunea, Santa Clara monasterioa eta Puentedey bisitatuko dituzte, besteak beste***

Ondoren, Puentedey ikustera joango dira. Goizean turismoa egin ostean, bazkaritara batuko dira, eta arratsaldean Espinosa de los Monteros ezagutzera joango dira. Egun osoan zehar gidari bat izango dute. Izen-ematea nagusien lokalean egin daiteke eta 30 euro da. Ekainaren 5a da izena emateko azken eguna.

## Izurtzarrak Algortara eta Santurtzira joango dira mendi ibilbidea egitera

**IZURTZA • J.D.**

Santurtzik eta Getxoko Algorta auzoak hainbat aukera ematen dute xendazaletasuna praktikatzeko, eta Amankomunazgoko Adinekoen Zerbitzuak hango inguruetara irteera antolatu du. Egun bitan egin daiteke: maiatzaren 29ko astelehenean eta

***Egun bitan egin daiteke: maiatzaren 29an eta ekainaren 5ean, bi astelehenetan***

ekainaren 5eko astelehenean. Interesatuta dauden izurtzarrek Amankomunazgora jo dezakete izen-ematea egitera. Antolatzaileek plaza mugatuak daudela jakinarazi dute.

Algortan Portu Zaharretik irtengo dira, eta hango inguruak apur bat ezagututa Santurtzirainoko bidea egingo dute.

# “Zortzi ardatz nagusi eta 50 bat proiektu ditugu programan, eta ilusioz eta gogoz gaude eurak aurrera eramateko”

*EAJtik Abadiñoko alkategai izango den Mikel Garaizabalek legegintzaldi honetako lana baloratu eta aurrera begira dituzten asmoen berri eman du*

Mikel Garaizabal EAJko alkategaia.

**Mikel Garaizabal Iturriagaetxebarria (Abadiño, 1976) Abadiñoko alkatea izan da lau urtez, eta bere kargua beste lau urterako berritu gura du domekako hauteskundeetan. Proiektuz beteriko programa esku artean, proiektu horiei aurre egiteko gogotsu dagoela dio. Joandako lau urteen balorazioa egin eta aurrera begira dituzten proiektuen berri eman du.**

**Zure lehenengo legegintzaldia bete duzu Abadiñoko alkate lez. Zelako balorazioa egiten duzu arlo pertsonalean?**

Oso ona. Alkate izan aurretik ere beti egon naiz lanean herriaren alde, hainbat elkartetan. 2003tik 2007ra zinegotzia ere izan nintzen. Eta, orain, norbere herriko alkate lez herritarren alde lanean egotea ohore bat da. Arlo horretan oso gustura aritu naiz.

**Eta udaleko jardueraren zer balorazio egiten duzu?**

Azkenengo lau urteetan hainbat gauza igaro dira, pandemia gogor bat tartean. Bat-batean etorri zen eta ahalik eta ondoen kudeatu genuen. Sasoi hartan, herritarren osasuna ipini genuen erdigunean, eta horretan zentratu ginen gure baliabide guztiekin. Baina beste gauza asko egiteko denbora ere egon da. Trañapadurako zubia aste honetan zabaldu da. Horri eskerrak, kamioiak ez dira Traña-Matiena barrutik igaroko. Zelaieta eta Muntsaratz arteko zeharkale eraberritua ere errealitate bat da. Horrez gainera, igerilekuan sortu diren arazoei irtenbidea eman diegu eta dagoeneko martxan da. Oraindino gauza batzuk falta dira egiteko, baina bideratuta daude.

***Auzo bakoitzerako, hau da, Zelaieta, Traña-Matiena, Muntsaratz eta baserri auzoetarako, proiektu eta programa bereziak ditugu***

**Herritarren parte hartzea handitzea izan duzue helburu.**

Bai. Aurrekontu parte hartzaileak martxan ipini ditugu, lehenengoz Abadiñon. Legegintzaldi honetan genuen lehentasunetariko bat herritarrengana eta euren eskaeretara hurbiltzea zen. Ildo horretatik, partaidetza sustatu dugu eta herritarrek proposamenak egiteko eta interesgarrien iruditu zaizkien proiektuak bozkatzeko aukera izan dute. Esaterako, iazko prozesu parte hartzailean, komun publikoak ipintzea izan zen proiekturik bozkatuena. Eta aurtengo aurrekontuetan 100.000 euro bideratu ditugu horretara.

Udala herritarrengana zabaltzeko beste bide batzuk ere zabaldu ditugu, herritarrei euren kezkak, proposamenak eta iritziak udalari helarazteko erremintak eskaintzea garrantzitsua dela uste dugulako. WhatsApp kontu bat, sare sozialak, hile birik behin buzoneatu izan dugun aldizkaria... Hori guzti hori guretzat lehentasun bat zen eta lortu dugula uste dut. Guretzat esperientzia aberasgarria izan da.

**Trañapadurako zubia egiteko proiektua aspaldikoa da eta zure legegintzaldian gauzatu da. Lan handia eskatu du?**

Bai, handia. Gure helbururik nagusietariko bat zubi hori egitea izango zela esan nuen legegintzaldiko lehenengo udalbatzarrean, eta lortu dugu. Lan handia egon da atzetik: lurren kudeaketa, URA agentziagaz egindako hitzarmena, obra esleipenera ateratzea... Badira 20 bat urte Abadiñoko Udala proiektu honen atzetik dabilena eta aste honetatik aurrera errealitate bat da. Oso albiste ona da Abadiñorentzat.

**Zeintzuk dira zuen hauteskunde programako punturik garrantzitsuenak?**

Zortzi ardatz nagusi ditugu eta, guztira, 50 bat proiektu. Auzo bakoitzerako, hau da, Zelaieta, Traña-Matiena, Muntsaratz eta baserri auzoetarako, proiektu eta programa bereziak ditugu. Esaterako, Traña-Matienako plazan aterpe bat egingo dugu, euria egiten duenean edo merkatua egiten denean aprobetxatzeko. Zelaieta eta Astola arteko espaloiak zabalduko ditugu, Ur Partzuergoagaz elkarlanean. Muntsaratz eta Atxondo lotuko dituen bidegorrirako proiektua egingo dugu. Horrez gainera, baserri auzoetan ermitak konpontzeko hitzarmenak egingo ditugu. Esaterako, Gaztelu auzoan badago ermita eraberritzeko eskaria eta dagoeneko gotzaingoagaz hartu-emanetan gaude hori bideratzeko. Gure ondarea zaindu gura dugu eta horrek baserri auzoei bizitza emango diela uste dugu, sarritan auzoetako elkargune direlako. Eta, orokorrean, saneamendua, mugikortasuna eta ikastetxeak hobetuko ditugu.

**Nondik irten dira proiektu horiek?**

Elkarlanean egin ditugu. Herritarrei euren proposamenak helarazteko bideak zabaldu ditugu, eta elkarteetara joan eta galdetu egin dugu. Beraz, denon artean egindako programa dela uste dut. Ilusioz eta gogoz beterik gaude eurak aurrera eramateko.

**Zelan bizi ditu alkateak eta alkategai denak hauteskunde aurreko azken egun hauek?**

Egun desberdinak dira eta hainbat emozio nahasten dira. Gure ardura nagusia da herritarrek ezagutu dezatela zer egin dugun eta aurrerantzean zer egiteko asmoa dugun. Eta ahalik eta jenderik gehienarengana heltzea gura dugu. Jakina, horrek alde batetik bestera ibili beharra dakar, baina gustura nabil. Orain lau urte alkate kargua hartu nuenean, gure lantalde osoa gogotsu eta topera hasi ginen, eta lau urtean ez dugula erritmoa jaitsi uste dut.

anboto kide

Anbotokideen txokoa

MAIATZEKO ZOZKETAK

**Uxarte sagardotegian** bi pertsonentzako jatordua.

**Kiropedia saioa,** Ainara Urreta podologia zentroan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

**Anonyme Popular San Agustinen:** Mikel Sangroniz Zabala
**BBK Karpin fauna:** Izaskun Derteano eta Arantza Dorado Berrocal
**Athletic eta Elx-en arteko partidua:** Joseba Elorriaga
**Gosaria Xiberun:** Iratxe Uribelarrea
**Errigorako otzara:** Andoni Urcelay Eraña

**Okm:** batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!

# Hil egin da Zaldibarren "istripu ez traumatikoa" izan zuen langilea

Zaldibarko Industrias Gonzalo Arizaga enpresan gertatu zen ezbeharra. 52 urteko langilea ospitalean hil zen

LABek Iruñean egindako elkarretaratzea. LAB

**ZALDIBAR • J. G.**

52 urteko J. R. langilea hil da aste honetan, Zaldibarko Industrias Gonzalo Arizaga enpresan "istripu ez traumatikoa" izan ostean; azken egunak ospitalean egin ditu, LAB sindikatuaren esanetan. Sindikatuak elkarretaratzea egin zuen maiatzaren 23an, Iruñean, azken egunetan Nafarroan beste langile bi hil eta gero. LABek elkartasuna eta samina adierazi dizkie senide, lagun eta lankideei. "Heriotza ez traumatikoak ugaritzen dabiltza eta geroago eta nabarmenagoa da lanpostu jakin batzuetan laneko arrisku faktoreek istripu hauetan duten eragina. 2022an lan istripuz hildakoen %33 istripu ez traumatikoan hil ziren. Horrek arazo kardiobaskularrak barnebiltzen ditu. Hainbat faktore dago istripu hauen atzean, baina arrisku psikosozialak eta estresa dira garrantzitsuenetariko batzuk. Horiekiko eskumenak dituen Urkulluren gobernuak entzungorrarena egiten du. Ez Osalanetik ez Lan Ikuskaritzatik ez dira neurri eraginkorrak hartzen langileengan geroago eta intzidentzia handiagoa duen arrisku honi aurre egiteko", salatu du LABek.

## César Núñez da Zaldibarko jaietako kartel iragarlearen egilea

**ZALDIBAR • A. M.**

César Núñez Alvarezen lanak iragarriko ditu aurtengo Zaldibarko jaiak; Astorgakoa (Leon, Espainia) da bera. Bigarren saria Oier Gamiz Perez durangarrak eraman du: 250 eta 150 euroko sariak irabazi dituzte, hurrenez hurren. Bestalde, umeen mailan Ane Garitaonandia eta Olaia Uribarri saritu dituzte. Epaimahaia jai batzordeko kideek osatu dute. Proposamenak hainbat tokitatik jaso dituztela nabarmendu dute antolatzaileek; Mundakatik, Valentziatik eta Durangotik, besteak beste. Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa egiten duten 30. aldia da Zaldibarren.

# Berriztu azoka egingo dute zapatuan Berrizen, lehenengoa pandemiatik

Berrizko probalekuan egongo dira erakusmahaiak, 10:30ean

Artxiboko irudia.

**BERRIZ • ARITZ MALDONADO**

COVIDak eragindako osasun krisialdia gaindituta, Berriztu azoka berreskuratuko dute Berrizen. "Beste kontsumo eredu bat sustatu gura dugu, herritik hasita, berrerabiltzea eta birziklapena kontzeptuak oinarrian dituena, besteak beste", azaldu du Eneko Baseta antolatzaileak. Ekimen hau antolatzen duten zortzigarren edizioa da aurtengoa, eta lehenengoa pandemiak ekimena eten zuenetik. Guztira, hogei bat mahai ipiniko dituzte probalekuan, eta musikagaz girotuko dute gunea; umeentzako txokoa ere egongo da.

Bigarren eskuko produktuak salerosteaz gainera, arteaz gozatzeko hitzordua ere bada Berriztu. Izan ere, Karlos Berrizbeitia marrazkilari berriztarrak murala margotuko du probalekuan bertan. Antolatzaileek azaldu dutenez, 10:30ean hasi eta 14:00ak bitartean egingo dute azoka.

Bilbotik irtendako ibiltarien zutabea Iurretara ailegatu zen martitzen goizean.

# Pentsiodunen martxak Durangaldea zeharkatu du, gutxieneko pentsioa 1.080 euroan ezarri dadin eskatzeko

Bilbotik Gasteizerako ibilaldian Zornotza, Iurreta, Durango, Izurtza, Mañaria, Abadiño eta Otxandio zeharkatu dituzte

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**
Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak lau eguneko ibilaldia egin du, pentsioen gutxieneko kopurua 1.080 euroan ezarri dadin eskatzeko, besteak beste. Horretarako, ibilaldi aldarrikatzaile bat egin dute. Bilbotik irten zuten astelehenean, oinez, eta Gasteizera ailegatu ziren, oinez, eguenean. Martxa astelehenean sartu zen Durangaldean. Pentsiodunak arratsaldean ailegatu ziren Zornotzara. Ibiltariek han igaro zuten gaua, eta, martitzenean, eguna zabaltzeagaz batera, Iurretarako bidea hartu zuten. Han izan zituzten zain, 10:30 aldera, Iurretako pentsiodunak. Txalo zaparrada bategaz hartu zituzten heldu berriak. Durangoko pentsiodunak ere berehala batu ziren martxara, Iurretaren eta Durangoren arteko mugan, hain zuzen ere. Gero denak batera Durangoko udal plazara joan, eta ekitalditxoa egin zuten han. Azkenik, pentsiodunen martxak Urkiolarako bidea hartu zuen. Gaua han pasatu ostean, Otxandiora ailegatu eta Arabako Iurretan sartu ziren. Gasteizen eman zioten amaiera martxari.

# Bazkaria eta herri kirolak Iurretako Bakixa auzoan

Bakixa auzoan Udaberri Jaia antolatu dute lehenengoz, eta egun osorako egitaraua osatu dute zapaturako

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**
Udaberri Jaia antolatu dute Bakixa auzoan, aurten lehenengoz. Auzokoak ermitaren inguruko zelaian elkartuko dira zapatuan, antolaturiko ekitaldietan parte hartzeko. Ermita berritzen parte hartu zuten hildakoen omenezko mezagaz hasiko dute eguna, 11:00etan. Meza amaitzean, aurreskua eskainiko zaie. Ondoren, auzokideen arteko jolas eta herri kirolen saioa hasiko da. Erakustaldia 12:00etan hasiko da.

Udaberri taldekoen euskal dantza saioa hasiko da 13:30ean, eta Igor Galarza, Gorka Lazkano eta Ander Sarriugarte bertsolariek beroturiko auzo bazkarian batuko dira, 14:30ean. Bazkalostean karta-jokoa hasiko dute, eta 20:00etan DJ Txululuk musika ipiniko du. Trikitilariek giroturiko jai eguna izango dute Bakixan.

# Beratutik Aiartzarako herri bidea konponduko dute

Garaiko eta Abadiñoko udalek lankidetza hitzarmena sinatu dute. Guztira 108.363 euro inbertituko dituzte

**GARAI / ABADIÑO • AITZIBER BASAURI**
Abadiñoko eta Garaiko udalek lankidetza hitzarmena sinatu dute udalerri biena den Beratutik Aiartzarako herri bidea konpontzeko. Esku hartzearen helburua "auzotarren, oinezkoen eta ibilgailuen segurtasuna bermatzea" da, herri bietako udal arduradunek jakinarazi dutenez. Udal biek "premiazkotzat" eta "beharrezkotzat" jo dute bidea hobetzea, "oinezkoen eta ibilgailuen zirkulaziorako dauden arazoak konpontzeko". Bideak 1.140 metroko trazadura du. Abadiñoko Udalak inbertsioaren % 42 hartuko du bere gain, eta gainerakoa Garaiko Udalak ordainduko du. Obrak 2023ko udazkenean hastea aurreikusi dute, lanak esleitzeko prozedura egin ostean. Aldian-aldian obraren jarraipena egingo dutela azaldu dute udal biek.

# Tuper hutsak eskuetan hartuta, asteon protesta egin dute eskoletan sukaldea ipintzea eskatzeko

Eskola publiko hauetako Ikasleen Guraso Elkarteek parte hartu dute protestan: Atxondo, Zelaieta (Abadiño), Maiztegi (Iurreta), Zaldibar, Juan Orobiogoitia (Iurreta), Traña-Matiena (Abadiño), Berriz, Zabalarra (Durango) eta Elorrio

Elorrioko eskolako argazkia.

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Berton Bertokoa dinamikak eta hainbat herritako Ikasleen Gurasoen Elkarteek (IGE) deialdi bat zabaldu zuten orain egun gutxi: maiatzaren 23an, seme-alabak tuper hutsekin bidaltzea eskolara. Ekintza sinboliko hori eskari bi egiteko baliau gura izan dute. Bat: eskoletako jangeletan sukaldea ipintzea eskatzea. Eta bi: Hezkuntza Sailari erantzun bat eskatzea, sukaldea kudeatzeko helarazi zieten proposamenaren harira. "Eskoletako jangelak catering enpresen beharrik barik kudeatzea ahalbidetuko ei duen eredu berriaren zain jarraitzen dugu, bien bitartean ezer egin ezinik", azaldu dute Berton Bertokoak eta hainbat IGEk.

Eragile bi horien esanetan, honako hau da eskoletako egoera: "Juan Orobiogoitia institutuan (Iurreta), pandemiaren ondorioz, ezezkoa eman zioten sukaldea ipintzeari; Traña-Matienan (Abadiño) erantzuna ezezkoa izan da, eredua aldatzear dagoen aitzakia ipinita; Zabalarra eskola publikoan (Durango) aurten ere ez dituzte sukaldea ipintzeko obrak martxan ipiniko; Atxondon, obrak egiteko aukeratu den enpresak baja eman dutenez, bigarren enpresa batek egingo duela irakurri dugu albisteetan, baina eskolan ez dago berri ofizialik".

## *Durangaldea asteon*

### Abadiñoko San Trokaz jaietan zapatuan eraso bat gertatu zela salatu du Itaiak

**ABADIÑO** | Zapatuan Abadiñoko San Trokaz jaietan eraso bat gertatu zela salatu du Itaiak. Itaiakoek ANBOTOri azaldu diotenez, lekuko batek salatu zuen erasoa, zapatu gauean bertan.

Jai batzordeak eta Izpilikuak Talde Feministak bat egin dute Itaiak egindako salaketagaz.

### Eskuragarri daude Zabalarra eskolako bideokliparen aurkezpen galarako sarrerak

**DURANGO** | Durangoko Zabalarra eskolan, bertako balioak eta euskara sustatuko dituzten abestia eta bideoklipa grabatu dituzte Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz. Bideoklipa ekainaren 1ean estreinatuko dute. Galara joateko sarrerak dagoeneko eskuragarri daude, Lupetza tabernan edo 627 842 079ra deituta.

### Maiatzaren 27an indusketa arkeologikoak egingo dituzte Santamarinazarren

**ELORRIO** | Maiatzaren 14an egitekoak ziren eta eguraldiagaitik bertan behera utzi behar izan zituzten indusketak zapatu honetan egingo ditu Aranzadik. Gerediagatik jakinarazi dutenez, lanak zer diren eta zelan egiten diren bertatik bertara ikusi gura duenak horretarako aukera izango du. 11:30ean ipini dute ordua, Santamarinazar tontorrean (gurutzeduna).

### Pedro Iparragirrek lore eskaintza egin du In Memoriam ekitaldian

**ZORNOTZA** | Zornoza elkarteak In Memoriam ekitaldia egin zuen domekan. Pedro Iparragirrek lore eskaintza egin zuen Zelaieta parkean, gerra zibileko hildakoak oroitzen dituen plakaren aurrean.

Iparragirre SCAZeko kide da eta umetan Amorebieta-Etxanoko okupazioa bizi izan zuen. Aintzane Ezenarro Gogora Institutuko zuzendariak ere parte hartu zuen ekitaldian.

Ezenarrok une historiko hartan "demokraziaren eta askatasunaren alde egin zuten pertsonen ondarea" nabarmendu zuen, eta "horiek defendatzeko, erregimen faxista baten asmoei aurre egin behar izan zietela" azpimarratu zuen.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ESKELAK
946 816 558 · anboto@anboto.org
anboto.org/eskelak
Anbotokideek deskontua izango dute.

# DEKORAZIOA ETA ERAIKUNTZA

*gehigarria 2023*

anboto

16 Eraikuntza eta berrikuntzak

22 Logela

18 Sukaldea

24 Bainugela

20 Egongela

# Dekorazioa eta eraikuntza

Aukera ugari dago norberaren etxea norberaren gustura edukitzeko. Batzuetan, obra sakonak egitea beste aukerarik ez da izaten. Kasu horietan norengana jo ez badakizu, gehigarri honetan ezin hobeto erantzungo dizuten sektoreko profesionalak aurkituko dituzu. Bestalde, askotan ez da etxea goitik behera aldatu behar dekorazio aldaketa bat egiteko. Halakoetan, ez da ideia irudimentsuak izatea bezalakorik, orrialde hauetan aurkituko dituzun modukoak. Kuxin eta osagarri aldaketak, altzari bereziren bat, hormak margotu... Durangaldeko profesionalen eskutik aholkularitzarik onena jasoko duzu zure ametsetako etxea izateko.

leike
Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

BERO EDER
www.beroeder.com
BEROKUNTZA SISTEMAK - AEROTERMIA - BIOMASA - EGUZKI ENERGIA - ZORU ERRADIATZAILEA

BERO EDER, S.L. Ixer, 20 behea - 48340 ZORNOTZA (Bizkaia) - Tel.: 946 300 829 - E-maila: info@beroeder.com

225.000€tik aurrera + BEZa

Obren hasiera udazkenean

Salmenta-bulegoa
Astxiki kalea 1 , Durango

sukia
Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

946 462 041
www.sukia.com

# Eraikuntza eta berrikuntzak

## Zorua aldatzea

Etxeko zorua aldatzeko asmoa baduzu, adi entzun 2023ko joerak zeintzun diren. Estanpatu ausartek eta naturan inspiraturiko kolore neutroek hartuko dute protagonismoa. Azulejuak intentzio adierazpena dira. Diseinu geometriko ikusgarria zein kolore eztanda distiratsuak izan, orain arteko mugak gainditzeko garaia da 2023a. Konbinatu ezazu tonu neutroekin eta osagarri diskretuekin, zure lurzorua benetan nabarmendu dadin.

GA

Gaztelu-Iturri
ARKITEKTURA

Landa ingurunean integratutako familia bakarreko etxebizitza. Estalkiaren tipologia bi isurkikoa da eta etxebizitzak proportzio angeluzuzenak ditu. Etxebizitza egiteko, material hauek erabili dira: harria, zura eta zeramikazko teila.

Hala ere, barrualdean diseinu garaikidea du, argitasunik eta zabaltasunik handiena lortzeko.

A

"A" kalifikazio energetikoa duen etxebizitza da, geotermia berokuntza, ur bero sanitarioa eta klimatizazioa erabiltzen dituena. Plaka fotovoltaikoak eta autokontsumorako bateriak ditu, eta zoru erradiatzailea barrualdean. Gainera, isolamendu termikoa du inguratzaile osoan, eta prestazio handiko arotzeriak energia-eskaria murrizteko neurri pasibo gisa.

Askatasun-etorbidea 17 Behea
48200 Durango

www.gazteluiturri.com

info@gazteluiturri.com
946509194

**Sukaldea berritzen**

2023an koloredun armairu aukera ausartagoak ikusiko ditugu, beste akabera interesgarri eta berezi batzuekin nahastuta. Diseinu irekiak nabarmenduko dira, dena erakusten dutenak. Horretarako, biltegiak ordenatuta izan behar dira, gauza bakoitza bere lekuan.

# Sukaldea

KIOSKO, Atxondo
KIOSKO ATXONDO
etxebizitza, Durango
VCG, Berriz
etxebizitza, Iurreta
etxebizitza, Durango
etxebizitza, Ermua
Dendak bai Fest, Durango
etxebizitza, Elorrio
TYL
SPACES
www.tylspaces.com

# Egongela

**Egongela argitsuak**

Dekorazio joerak aipatzerakoan, sarritan egongeletan zentratzen gara. Denborarik gehien ematen dugun espazioetariko bat izanda, arretaz dekoratzea komeni da, espazio txikia izan arren. Sofa aukeratzen hasi gaitezke, eta, ondoren, beste osagarri guztiak begiratu daitezke. Argiztapen naturala edo artifiziala izateak ere eragingo du, batez ere koloreak aukeratzerako momentuan. Argi gutxiko lekuetan, kolore argiak erabiltzea komeni da. Egongelak ikutu natural bat emateko, loreak ipintzeak ere funtzionatzen du. Eta liburu zein objektu asko izanez gero, biltegietan ondo ordenatzea ere ez ahaztu.



Etxean gozateko sofak

Teseo_Desing by Félix López Gil

Francisco Ibarra Kalea, 8 behea
48200 Durango
Tel. 946 41 88 67
www.famaliving.com

famaliving
Durango

# Logela



## Apaindu txoko bakoitza

Logelak leku lasaia izan behar du, atseden hartzeko espazioa. Horma zuria gailendu daitekeen arren, oheburuan kolorea edo papera sartzeak jokoa eman dezake. Bestalde, logeletan detaileek euren garrantzia daukate. Txoko bakoitza apainduta, norberaren gustura sorturiko logela izango dugu. Horretarako, hortxe daude izara eta kuxinak, baita osagarriak ere: lanparak, apalategiak, alfonbrak, koadroak... Gau-mahaitxoak praktikotasun handiko altzariak dira eta jantzi egiten dute logela.

etxedreams
COLCHONERIAS

Koltxonetak - Kanapeak - Oinarriak - Oheburuak - Burkoak - Osagarriak

1985. urtetik
AMETSAK SORTZEN
"atsedena profesionalen esku utzi behar delako"

OHE ARTIKULATUAK
ESPEZIALISTAK
"atseden ona izatea da garrantzitsuena"

Tel: 652767433 / 747495302
etxedreamscolchonerias@gmail.com

Fray Juan de Zumarraga N9 (DURANGO)
Zubiaurre N32 (ERMUA)
Bizkargi N2 (AMOREBIETA)
Isasi 23 (EIBAR)

@etxedreams_colchonerias

# Bainugela

**Erlaxatzeko lekua**

Komuna erlaxatzeko lekua izaten da. Bere oinarrietariko bat ordena da. Bainugelak osagarriz, produktuz eta kosmetikoz beteriik izaten dira, eta horiek gordetzeko espaziorik izan ezean, dena nahasten da. Materialei dagokienez, urarekin lotutako gela bat denez, urarekiko eta hezetasunarekiko erresistenteak diren material zehatzak jarri behar dira bainugelan, hala nola zeramikoak, marmola, mikrozementua edo kristala

# 'Arrainak bihotzean'

ANTZERKIA **IURRETA :: EKAINAK 2**

## Itsas hondoan zehar egindako bidaia, Mar Mar Teatroren eskutik

Martik ez daki non bizi diren beldurrak; hortaz, lasai bizi da kresal usaina duen herri polit batean. Aita marinela du eta portuan, bere zain dagoen egun gris batean, ekaitz batek uretara jaurtiko du. Horixe du abiapuntu *Arrainak bihotzean* obrak. Hartara, Martik nahitaezko bidaia hasiko du itsas hondoan zehar, horretarako arrainen eta beldurren hizkuntza ikasi behar badu ere, Mar Mar Teatro konpainiako kideek azaldurikoaren arabera. Konpainiaren ibilbide laburreko bigarren obra da *Arrainak bihotzean*.

Iurretako Ibarretxe kultur etxean taularatuko dute antzezlana, 17:00etan. Jatorrizko ideia eta poemak Leire Bilbao idazle ondarroarrarenak dira, eta taula gainera Irene Hernando, Aritza Rodríguez eta Maitane Serrano aktoreak igoko dira, Getari Etxegarairen zuzendaritzapean.

## Maiatzaren 26an

**ATXONDO** musika
**Cristina Villamia**, 21:00etan, Arrazolako Amillena bentan.

**BERRIZ** tailerra
**Zirku tailerra (Zirkoaurre)**, 17:00etan, eskolako patioan.

**DURANGO** musika
**Bartolome Ertzilla musika eskolako Konboa**, 18:30ean, Plateruenean.

**IURRETA** narrazioa
**'Cuentos de velatorios y tabernas' (Carles G. Domingo-Errioxa)** helduentzako narrazioa, 19:00etan, biblioketan.

—

## Maiatzaren 27an

**BERRIZ** Asentzioak
**Umeentzako oihal tailerra eta ikuskizuna**, 18:00etan, Andikoan. Ondoren, **auzo afaria bertsolari eta trikitilariekin**.

**DURANGO** musika
**Koba Sessions: A.D.+ Ikarass + The Kraven + Bullets of Misery + Rise to fall**, 18:00etan, Plateruenean.

**DURANGO** musika
**Bart...Sax! plazara**, 13:00etan, Ezkurdiko kioskoan. Ondoren, Itsua DJa.

**DURANGO** jaialdia
**Loreen Jaialdia**, **Turkiaren eta Siriaren alde**, Madalenan. **Azoka**, **DJ Gabik girotuta,** 11:00etatik 19:00etara.
**Txistulariak**, **L'Atelier**, **Durangoko Orfeoia eta sevillanak**, 13:00ean.
**Herri paella**, 15:00etan.
**Akustikovers,** bazkalostean.
**Sakramentuak txingarretan**, 19:00etan.
**Kuadrillen karaokea**, 20:30ean.
**La flor de tus ojos**, 22:00etan.

**MAÑARIA** kontzertua
**Maximo Morenoren abesbatza (Galdakao) + Kirikiño (Mañaria) + Oihandi (Otxandio)**, 20:00etan, Jasokundeko Andra Mari elizan.

**ELORRIO** Erdella Eguna
**Santamaña-Erdella mendi irteera**, 08:30ean, plazatik.
**Zintzilik emozioen laborategia**, plazan (11:00-13:30 / 17:00-18:00).
**Eingo taldea**, 13:30ean.
**Bazkaria**, 14:30ean, plazan.
**Eingo taldea**, 16:30ean.
**Nagusientzako emozioen laborategia** (18:00-20:00).

**IURRETA** Udabarri jaia
**Meza**, 11:00etan, ermita berritzen parte hartu zuten hildakoen omenez, Bakixan. Gero, aurreskua.
**Auzokideen arteko jolas eta herri kirolak**, 12:00etan.
**Udabarri taldeko dantzariak**, 13:30ean.
**Auzo bertso bazkaria: I. Galarza, G. Lazkano eta A. Sarriugarte**. Ondoren, **mus, briska eta tute prix-a**.
**DJ Txululu**, 20:00etan.

**MALLABIA** ibilaldia
**'Mallabitarrok egina VIII'**, 10:00etan, Petriletik.
**Bazkari autogestionatua**, 13:30ean, Trabaku Goikon.
**Mallabia Cup futbola eta saskibaloia**, 09:00etan eta 16:00etan, eskolan.
**Briska txapelketa**, 17:00etan, frontoian.
**Herri kirolak**, 19:00etan, frontoian.

—

## Maiatzaren 29an

**MALLABIA** berbaldia
**'Ezagutu kolesterola' (Hizlaria: Maite González)**, 16:15ean, Kontzejuzarren.

—

## Maiatzaren 30ean

**DURANGO** izen-ematea
**Sobronen via ferrata egiteko (ekainak 11)**, 19:00etatik 19:30era, Alpinoko bulegoan.

**DURANGO** izen-ematea
**Osintxu (Bergara)-Usako (Oñati) bizikleta irteera (ekainak 4)**, 19:00etan, Alpinoko bulegoan.

—

## Maiatzaren 31ra bitartean

**ZORNOTZA** erakusketa
**'Arkitektura' (Uztargi.klik)**, Zelaieta zentroan.

—

## Maiatzaren 31n

**ELORRIO** berbaldia
**'Hegoaldeko mugara begira' (Hizlaria: Mohamed Kone Bizkaiko Mugimendu Antiarrazistako kidea)**, 19:00etan, Iturri kultur etxean.

**MALLABIA** tailerra
**Arteterapia**, 18:30ean, Kontzejuzarren.

—

## Ekainaren 1ean

**MALLABIA** proiekzioa
**Menditour dokumentalak: 'Agur Artzai' + 'Adrenaline Sucks' + 'Not Alone' + 'Creation Theory'**, 19:00etan, Kontzejuzarren.
**Biharko Izarrak (finalerdiak)**, 21:00etan, frontoian.

—

## Ekainaren 2an

**BERRIZ** aurkezpena
**'Moio: gordetzea ezinezkoa zen' liburuaren aurkezpena (Kattalin Miner),** 18:00etan, Kultur Etxean. Izena emateko azken eguna maiatzaren 30a.

**DURANGO** kontzertua
**IBZ Fest: Ezpalak + Penny Fleck + Dj J. Nandez & Charles Ramirez + DJ EK Ramirez + DJ Iker Undersound,** 22:00etan, Plateruenean.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

# Zinema

**:: Berriz**
KULTUR ETXEA
• ***La buenas compañías***
**barikua 26:** 19:30
**domeka 28:** 19:30

**:: Durango**
ZUGAZA ZINEMA
• ***La sirenita***
**barikua 26:** 18:00 / 21:00
**zapatua 27:** 16:30/17:30/20:30
**domeka 28:** 16:30/19:30
**astelehena 29:** 17:30/20:15
**martitzena 30:** 17:30 / 20:15
**eguaztena 31:** 19:00

• ***Maestro(s)***
**barikua 26:** 19:00 / 21:00
**zapatua 27:** 19:30 / 21:30
**domeka 28:** 19:30
**astelehena 29:** 18:00/20:15
**martitzena 30:** 18:00 /20:15
**eguaztena 31:** 19:00

• ***Extraña forma de vida***
**barikua 26:** 18:00/20:00
**zapatua 27:** 16:30/17:30/18:30/21:30
**domeka 28:** 16:30/17:30/20:30
**astelehena 29:** 18:00/19:00
**martitzena 30:** 18:00/19:00
**eguaztena 31:** 18:00

• ***Alice, cariño***
**barikua 26:** 18:00/21:00
**zapatua 27:** 19:30
**domeka 28:** 18:30
**astelehena 29:** 20:15
**martitzena 30:** 20:15

• ***Las bodas de Fígaro***
**eguaztena 31:** 20:15

**::Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA
• ***Scarlet***
**zapatua 27:** 20:00
**domeka 28:** 20:00
**astelehena 29:** 20:00

**::Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA
• ***Las buenas compañías***
**barikua 26:** 20:00
**zapatua 27:** 20:00
**domeka 28:** 20:00
**astelehena 29:** 20:15

• ***Patti y la furia de Poseidón***
**zapatua 27:** 17:00
**domeka 28:** 17:00

**Victor Arrizabalaga Salgado**
Eskultorea
MAÑARIA | **1957**

# “Harrobi hau espazio magiko bat izatea gura dugu, naturan arteaz gozatzeko”

Victor Arrizabalagaren ametsa bete egin da, Angurreta harrobian Tadanori Yamaguchi artistagaz erakusketa antolatuta

ARTEA • JOSEBA DERTEANO

**Durangaldeko hainbat artistaren ekimenez, Mañariko Angurreta harrobi abandonatuari bigarren bizi bat eman zioten 2021ean, eta Angurreta Harrobia arte espazioa sortu zuten han. Harrezkero kontzertu bat baino gehiago antolatu dute bertan. Joan zen astean, Tadanori Yamaguchi artista japoniarraren lanak aurkeztu zituzten espazio horretan. 'Denboraren aztarnak' da erakusketaren izena. Victor Arrizabalaga proiektuaren sustatzailea da eta ANBOTOren galderei erantzun die.**

**Zelan deskubritu zenuen leku hau?**

Ibilbide luzea izan da. Urteak dira hona etorri nintzela. Badakizu hemen harrobi asko dagoela. Sasoi hartan, Eduardo Txillida Fuerteventuran zegoen. Tindayan mendi bat hutsitu behar zuen. Prentsan esan zuen Euskal Herrian ez ziotela ezer eskaini. Argazki batzuk atera nituen eta bidali egin nizkion. Aste batzuetara erantzun egin zidan. Handik pasatzeko aukerarik egongo litzatekeen galdetu zidan. Gero gaixotu egin zen eta ideia hori bertan behera geratu zen. Leku hau asko gustatzen zait. Leku batua da, eta etorkizunean anfiteatro bat egin gura dugu, eszenatoki eta guzti. Leku zoragarria da kontzertuak emateko, eguraldiari begira egon beharko den arren. Untzillatx, Mugarra, Eskubaratz... burbuila bat dirudi. Meditaziorako lekua dela ematen du. Jesus Landia lagunagaz etorri nintzen, harrobi bat erakutsi gura niola eta. Paseo bat eman eta beste harrobi hau ikusi genuen. Zoragarria zela konturatu ginen. Naturaren barruan dagoen klaustro bat ematen du. Txorien kantua entzun eta zure buruagaz egoteko leku bat da.

**Zelakoa izan da instalazio honen sormen prozesua?**

Oso prozesu luzea eta konplexua izan da. Proiektu hau gauzatzeko, arkitekto batek, delineatzaile proiektista batek eta Tadanori Yamaguchik parte hartu dute. Produkzio guztia geuk egin dugu. Durangoko tailerrean lan egin dugu. Harrobitik tona biko harri bat jaitsi genuen, aluminioa lantzeko. Tadanorik diseinua egiten du, baina gauzek egin ahala hartzen dute forma. Oso gogorra izan da. Baina piezak magia handiko lanak dira eta oso ondo txertatuta daude inguruan. Harriaren forma materialera pasatu dugu. Forma poliedriko irregularrak dituzte, kateatuta. Mugimendu zoroa dute. Pieza batek behetik pasatzea uzten dizu, interaktuatzea. Beste artelan batek mendiaren profila imitatzen du... Ekosistema kultural bat sortu gura nuke, harrobiaren inguruan zaletasuna eta laguntasuna konpartitzeko. Ea proiektu berriak sortzen diren leku hau herritar guztiei eskaintzeko.

**Zelakoa izan da Yamaguchigaz lan egitea?**

2005ean ezagutu nuen; beraz, 18 urte pasatu dira elkar ezagutu genuenetik. Gustuko nuen bere obra. Oso forma depuratuak lantzen ditu, eta naturagaz loturiko gai efimeroak: itsasoko urak hondarrean uzten dituen formak marea jaisten denean, sorgin-orratzaren hegoak... oso gauza sofistikatuak eta detaile handikoak dira. Oso sentsibilitate depuratua du. Formalki oso elegantea eta ikusteko gozamena da. Artea musikaren modukoa da, nota musikal bat da. Ulertzen duzu edo ez.

**Tadanorik eta zuk elkarregaz lan egin gura zenuten.**

Inguruan genuen jendearen artean, proiektu hau egingo genuela pentsatzen genuen bakarrak ginen. Batak bestearenganako konfiantza izan dugu eta erronka pertsonal bat izan da. Hau nire bizitzan inflexio puntu bat da eta bere bizitzan ere hala izatea gura dut.

**Zein espazio mota izatea gura zenuke?**

Harrobi hau espazio magiko bat izatea gura dugu, naturan arteaz gozatzeko. Eta, ahal bada, lagunekin. Hemen ekitaldiak antolatzen diren neurrian, aisialdirako alternatiba bat izan daiteke. Mañarian harrobi asko dago eta batzuk iraungitze data dute.

**Erakusketa honek zer suposatu du zuretzat?**

Proiektu honegaz amets bat egia bihurtu da. Denbora honetan, lantaldera batu dudan jende berria ezagutu dut. Lagunen hartu-emana berritzeko ere balio izan dit. Orokorrean, oso atsegingarria izan da. Oso gogotsu ikusi naute proiektua defendatzen, eta lagun asko inplikatu da. Horixe izan da lan honen parterik politena. Apenas ezagutzen nituen pertsonek laguntzea.

Tadanori Yamaguchi eta Victor Arrizabalaga.

# Abadiñon egingo den Koba Live jaialdiaren aurkezpena egingo dute Plateruenean

Koba Sessions ekitaldia Durangon izango da, zapatuan; 18:00etan hasita, bost taldek emango dituzte zuzenekoak; tartean, The Kraven eta Ikarass talde durangarrek

Rise to fall.

**MUSIKA • A. M.**

Zapatuan, hilak 27, Durangaldeko metalzaleek hitzordua dute Plateruena kultur aterpean. Bost taldek kontzertua joko dute bertan; tartean, Ikarass eta The Kraven talde durangarrek. Bigarren lan luzea izango denaren konposizio lanetan murgilduta daude lehenengoak; bestalde, bigarrenak, urte batzuetako geldialdiaren ostean martxa hartu eta kontzertuak ematen dabiltza azken hileetan. Hain zuzen ere, hamalau urteko geldialdiaren ostean jo zuten aro berriko lehenengo kontzertua, iaz egin zen Koba Live jaialdian.

Talde bi horiekin batera, A.D, Bullets of Misery eta Rise To Fall taldeak arituko dira. Azken hauek izango dira kartelburuak. Talde bizkaitarra 2006an sortu zen, eta ordutik ehunka kontzertutik gora jo dituzte. 18:00etan hasiko da jaialdia, eta sarrerak leihatilan bertan erosi ahalko dira.

**Ekainaren 24an, Abadiñon**

Aurtengoa, Koba Live musika jaialdia egingo den bigarren aldia izango da. Edizio honetan Angelus Apatrida, Primal Fear, El Altar Del Holocausto, Mosh, Sweet Rage eta Blackhearth taldeek emango dituzte kontzertuak Abadiñon.

# 'La divina Commedia' erakusketa Durangoko Museoan izango da gaurtik aurrera

Hogei bat artistak Danteren testuetan oinarrituriko "lan esklusiboak" sortu dituzte erakusketarako

Massimiliano Tonelli, Maria Jesús Cueto eta Garazi Arrizabalaga.

**ERAKUSKETA • A. M.**

*La Divina Commedia* erakusketak Dante Alighierik idatzitako obra du oinarri, eta hamabost artistak baino gehiagok "lan esklusiboak" egin dituzte bertan erakusteko; besteak beste, Magdalena Albendearen, Milo Biancaren, Jose Coboren eta Massimiliano Tonelliren lanak erakutsiko dituzte. "Danteren testuek era guztietako artistengan izan dute eragina eta inspirazioa azken 700 urteotan: margolariak, eskultoreak, poetak eta musikariak. Hori dela eta, erakusketa honek poeten, musikarien eta zineforumaren emanaldiak izango ditugu", azaldu dute Durangoko Arte eta Historia museotik ohar baten bitartez.

Ohikoa den moduan, museoak erakusketagaz lotura duten jarduerak antolatu ditu. Ekainaren 1ean Massimilano Tonellik berbaldia emango du, eta gero zineforuma egongo da; Tonelli erakusketako komisarioa ere bada. Ekainaren 15ean, Jon Antonek piano kontzerta emango du museoaren atzeko lorategian. Atzo zabaldu zituen ateak erakusketak, eta uztailaren 2ra arte egongo da zabalik.

## *Gai librean*

**Hauteskundemia**

Esnatu zara, egunero legez. Logelako leihotik argi izpi bat sartzeko esperoan hurbildu zaizu besarkada eske euri tanta bat. Ez diozu ukatu, baina leihoa itxi duzu, ez zaude hainbeste besarkada emateko gogoz. Altxatu zara, euri tantaren agur negarra agurtu duzu, eskua izterretik pasatzean. Bazoaz ezkaratzera, irratia isiotu... eta 2020ko martxoaren 15a gogoratu duzu. Alarma egoera ezarri zuten orduan, eta gaur irratitik beste egoera bat iragarri dutenean egutegira begira geratu zara, hasperen egin duzu, badakizu zer datorren: maiatzaren 12a da.

Bost minuturo iragarki bat, maiatzaren 28an zer egin behar duzun esaten dizun iragarkia. Kalera irten zara, autobusa hartu behar duzu lanera joateko. Geltokiko panel handietan ere agertzen dira M-28an hartu beharreko neurriak.

Igor
Galarza Intxausti
**Kazetaria**

***Zuk txertoa jarrita duzu, baina beldur zara zure ingurukoek ez ote zaituzten kutsatuko***

Igo zara autobusera, eta alboan doazen lagun bik kutsatzaile aurpegia dutela igarri diezu. Badaezpada, ez kutsatzeko entzungailuak jarri dituzu. Heldu zara lanera. Momentuz, salbu. Lankideen artean hasi zarete berba egiten, aldaera berri bat sortu dela Abadiñon, Durangon... eta aldaera horietako bat duten susmoak piztu zaizkizu. Zuk txertoa jarrita duzu, baina beldur zara zure ingurukoek ez ote zaituzten kutsatuko...

Maiatzaren 26an gaude. Txertoak funtzionatu dizu, aldaera berriek beraien bidea egin dutela ikusten duzu, baina izurria zure zainetan dabilen zomorroa protagonista izango delakoan zaude. Gaur zomorroek beraien agerraldia egin gura dute, ea beste zain batzuetan hedatzea lortzen duten. Batzuek parrillada, beste batzuek beraien familiako birus nagusiaren mitina... Denerik egingo dute igandean izurria beraiena egin dezaten. Eta gero negazionistak daude, dena antzerkia dela diotenak, zomorro guztiak berdinak direla azpimarratzen dutenak. Momentu batzuetan zuk ere sentsazio hori izaten duzu. Baina gero konturatzen zara antzerkia aprobetxatzen dutela antzerkia egiteko.

Zer den hauteskundeen pandemia; parte hartu gura ez dutenek parte hartu gura dute ez dutela parte hartuko esateko. Ez dakit zu, baina ni astelehena ailegatzeko gogoz nago. Bakoitzak ikus dezala, nik leihoa zabalik daukat, euria egiten badu ere, egingo baitu, ez dut eguzkiaren izpia agertzen deneko momentua galtzerik gura.

AINHOA IRAOLA

# “Euskal Herriko eskalatzailerik onenek bide hori egin dutela jakitea motibazio gehigarri bat izan da”

9a zailtasuneko 'Begi puntuan' (Etxauri) bidea egitea inflexio puntua izan da Ainhize Belar eskalatzailearenzat

ESKALADA • JONE GUENETXEA

**Eskaladaren munduan gutxi batzuek lortu dutena egin du Ainhize Belar atxondarrak, 17 urtegaz. Etxaurin 9a zailtasuna duen 'Begi puntuan' bidea kateatu berri du. Belar Sputnik taldean entrenatzen dabil.**

**17 urtegaz 9a zailtasuneko bidea egin duzu. Gainera, bide hori egiten duen lehenengo emakumea zara. Zein sentsazio duzu?**
Oso pozik nago. Prozesu luzea izan da, baina gero, helburua lortzen duzunean, poztasun handia ematen du.

**Zergaitik aukeratu zenuen bide hori? Zergaitik erabaki zenuen 8c-tik 9a-ra salto egitea?**
Etxetik gertu ez zegoen motibatzen ninduen 8c+ bat ere. Bide hau beti izan dut buruan, bideoak ikusi ditudalako. Bestalde, nire entrenatzaileek asko animatu ninduten. Ondo doakidan bidea izan zitekeela esan zidaten. Horregaitik erabaki nuen ahalegina egitea.

**Zelan prestatu duzu?**
Ez da erraza izan. Berotzen hasi zen eta goizeko seietan jaiki behar izan nuen ekinaldi bat egiteko, oso goiz, tenperatura ona egoteko. Entrenamenduak ere horretara bideratuta egon dira eta oso zetratuta egon naiz.

**Zein zailtasun aurkitu duzu 'Begi puntuan' kateatzerakoan?**
Kizkurrak, helduleku txikiak eta erresistentzia batez ere.

**Lan hori guztia egin eta gero, bidea kateatu zenuenean zer sentitu zenuen?**
Izugarri emozionatu nintzen. Familia guztia emozionatu zen. Oso polita izan zen.

**Aurretik, izen handiko eskalatzaileek egin duten bidea da. Patxi Usobiagak edo Iker Pouk, esate baterako. Horrek motibatu egiten zaitu?**
Euskal Herriko eskalatzailerik onenek bide hori egin dutela jakitea motibazio gehigarri bat izan da. Zerrenda horretan sartzea handia da.

**14 urtegaz 8c bat egin zenuen, 17gaz 9a. Gainera, estatuan 9a bat egindako emakumeen zerrendan ere sartu zara.**
Hasieran, pozarren nengoen lorturikoagaz, baina ez nintzen horretaz kontziente, ezin nuen sinistu egindakoa. Gero konturatzen zara egindakoak duen dimetsioaz.

> *“Eskaladatik bizitzea gustatuko litzaidake, baina badakit oso gatxa dela; beraz, B plan bat izan behar da”*

**Zure ibilbidean 8c inflexio puntu bat izan da. Etxaurin egindako lorpena beste bat dela sentitzen duzu?**
Baietz esango nuke; nabarmenduko nukeen momentu bat izan da. Hala ere, gehiago egotea espero dut.

**Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?**
Beste zeozer egitea pentsatu beharko dut, baina oraindino ez daukat oso argi zer. Udan beste leku batzuetara joango naiz eta ikusiko dugu zein izango den hurrengo erronka.

**Uda luzea duzu aurretik. Zeintzuk dira zure planak?**
Arrokan eskalatu gura dut, eta uda ostean datozen txapelketetarako ere prestatu behar naiz.

**Txapelketetan ere aritzen zara. Zein helburu duzu?**
Txapelketetan parte hartzeak asko betetzen nau. Momentu honetan ezingo nintzateke txapelketarik barik egon. Hala ere, arrokan eskalatzea da gehien gustatzen zaidana, eta horretan zentratuta nago.

**Pedro Berguagaz eta Ekhiotz Alsasuagaz entrenatzen zara. Zelako entrenamenduak egiten dituzue?**
Sputnik taldean entrenatzaile bi, psikologo bat, fisioterapeuta bat eta nutrizionista bat ditugu. Asko laguntzen digute gure errendimendua hobetzen.

**Sputnik taldean sartuta, igarri duzu aurrerapausorik entrenamenduei dagokienez?**
Bai, bestela nire kontura entrenatu beharko nuke. Sputniken egonda, zehaztasun gehiagogaz entrenatzen zara. Detaile gehiagotan zentratzeko aukera ematen du. Esate baterako, alde psikologikoa ere oso garrantzitsua da. Horrek guzti horrek lagundu egiten du eta igarri egiten da.

**Zelakoak izaten dira entrenamendu horiek?**
Entrenamenduak Internetez bidaltzen dizkigute. Gero, taldean hilean behin batzen gara.

**Hemendik bost urtera, non ikusten duzu zeure burua eskaladaren munduan?**
Eskaladatik bizitzea gustatuko litzaidake, baina badakit oso gatxa dela; beraz, B plan bat izan behar da.

**Arrokan, esate baterako, zein helburu duzu etorkizunera begira?**
Bidaiatzea eta motibatzen nauten eskalada bide ikonikoak egitea gustatuko litzaidake.

**Orain arte arrokan eskalatutakoen arten, zein da zure lekurik kutunena?**
Valdegovia, bertan egin ditudalako nire lehenengo 8a, 8b eta 8c bistaz.

**Aitagaz hasi zinen zaletzen.**
Bai, aitak betidanik eskalatu du. Arrokan eskalatzera joaten ginen, 8 urtegaz edo. Gero Elorrioko ikastolako rokodromoan hasi nintzen. Handik herrikora pasatu nintzen, eta aitagaz eskalatzera irteten nuen.

'Begi puntuan', Etxauri. AITZIBER NARBAIZA

Amorebietako jokalariak burumakur Tarragonaren kontrako norgehiagoka amaitu ostean.

# Amorebietak azken aukera izango du zapatuan Bigarren Mailara igotzeko

**FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**

Amorebietak hiru jardunaldi daramatza Bigarren Mailara igotzeko aukerekin. Lehenengo bietan ez du helburua lortu eta zapatu honetan azken aukera izango du, arratsaldean Athletic B-ren kontra Lezaman jokatuko duen partiduan. Egoera onean heldu da azken jardunaldira: berdinketa bat nahikoa du eta Athleticek ez du ezer jokoan, dagoeneko maila galduta duelako.

### Etxean huts

Txaranga eta festa giroa kalean, Urritxe zelaia lepo... Joan zen zapatuan, Zornotzan dena prest zegoen igoera ospatzeko, baina ez zen horrelakorik gertatu. Amorebietak garaipena merezi izan zuen arren, banakoagaz amaitu zen Gimnastic de Tarragonaren kontrako partidua, eta emaitza horrek ez zion balio izan, Eldensek irabazi egin zuelako bere neurketa. Urdinek aurrea hartu zuten markagailuan, Eneko Jauregiren gol baten bitartez, eta Tarragonaren berdinketa lehenengo zatiko hondarrean heldu zen. Bigarren zatian, Haritz Mujikaren gizonak etengabe ahalegindu ziren, baina erdiraketek ez zuten errematatzailerik aurkitu. Eskualdeko jokalariei dagokienez, Xabi Etxeita zentral zornotzarrak partidu osoa jokatu zuen eta Ewan Urain aurrelari durangarrak azkenengo hamar minutuak.

# Bizkaiko txapelketa irabazi ostean, Michel Diatta durangarrak Euskadikoa irabazi du

Michel Diatta, Getxon, Euskadiko txapelketa irabazi ostean.

**BOXEOA • J.D.**

Joan zen asteburuan Euskadiko boxeo txapelketak lehiatu zituzten Getxoko Andra Mari kiroldegian. 80 kilora arteko elite mailan, Michel Diatta geratu zen txapeldun. Hiru roundetara jokaturiko finalean, Daniel Ruiz arabarra menderatu zuen. Epaileek aho batez hartu zuten erabakia. Garaipen handi honek Espainiako txapelketan aritzeko atea zabaldu diezaioke boxeolari durangarrari. Diatta orain lau urte itzuli zen ringera, eta harrezkero izandako bost borrokaldiak irabazi ditu. Durangarra boxeo monitorea da Durangon.

# Betsaide Elorrio txapeldun eta DRT azpitxapeldun Euskal Ligako finaletan

**ERRUGBIA • J.D.**

Betsaide Elorriok Euskal Ligako finala irabazi zuen joan zen zapatuan Irunen jokaturiko finalean. Taldeak denboraldiko partidu guztiak zituen irabazita, eta beste hainbeste egin zuen finalean Eibar taldea 24-19 menderatuta.

Bestalde, Durango Rugby Taldeko neskek gertu izan zuten garaipena, hauek ere finala jokatu zutelako, baina puntu bakarreko aldeagaz Gaztedirentzat izan zen garaipena: 26-25.

Betsaide Elorrioko jokalari eta zaleak Irunen ateratako familia argazkian.

## *Jokaldia*

### Tourra badator Abadiñora

Hilabete pasatxo falta da Frantziako Tour handia gure lurraldera etortzeko. Oraingoz ez da hainbeste entzuten eta ematen du momentuz askok ahaztuta dutela Tourra hona etortzeak eragingo dituen mugimendua eta oihartzuna. Munduko herrialde askok gugan jarriko dute begirada eta gertutik jarraituko gaituzte.

Egia esanda, neuri ere batzuetan ahaztu egiten zait: lana edo umea dela, eskolaz kanpoko ekintzak direla, lasterketak... Ziztu bizian bizi gara, horrela dugu antolatua gure bizimodua eta konturatu orduko kexaka hasiko gara sei ordutan bideak itxita egongo direlako eta une horietan ezingo dugulako gure bizimodu estresatua egin.

Eneritz Iturriaga Mazaga
**Txirrindularitza**

***Frantziako Tourraren harira, gaztetxoentzako askotariko ekintza ludikoak egingo ditugu Abadiñon ekainaren 19an***

***Ondo pasatzeko gogo itzela ekarri, oso egun interesgarria eta desberdina izango da eta***

Horregatik gogorarazi nahi dizuet gutxi falta dela hitzordu horretarako, eta etorriko dena handia izango dela. Imajinatu zer handia den, hori gogorarazteko Matiena Herri eskolarekin eta Zelaietako eskolarekin batera Tourraren gaineko ekintza ludikoak egingo ditugula Abadiñon ekainaren 19an. Bertan, bizikleta ardatz hartuta, ondo pasatzeko eta txirrindularitzaren sekretuak ezagutzeko aukera emango dugu. Marea horia ala berdea sortuko ote dogu? Nahi duzuen guztiok etorri ahalko zarete bertako ikuskizunaz gozatzera. Hori bai, mesedez bizikleta, kaskoa eta jolasteko eta ondo pasatzeko gogo itzela ekarri, oso egun interesgarria eta desberdina izango da eta. Guk, gure aldetik, ahalegin guztia egingo dugu denok elkarrekin egun atsegin bat igaro dezagun. Betiko lez, kirola balioekin uztartzen saiatuko gara eta horretara bideratuko ditugu gure ahaleginak. Txertatu diezazkiegun kirolaren inguruko balioak umeei, nagusitan adeitsuak izan daitezen.

# Okm:
batzen gaituen distantzia

anboto kide

*Egin zaitez anbotokide!*

## Botikak

**BARIKUA, 26 · 09:00-09:00**

GAZTELUMENDI, J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 27 · 09:00-09:00**

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 28 · 09:00-09:00**

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 29 · 09:00-09:00**

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 30 · 09:00-09:00**

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 31 · 09:00-09:00**

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 1 · 09:00-09:00**

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak guztioi!

**GOZATU GOZOTEGIA**

Zorionak, **Izar (935. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Datorren domekan, maiatzak 28, egingo dozun lehenengo urtebetetziegaitik, zorionak **Ur**! Etxeko danon partez.

Zorionak denon partez, ondo pasa. Bina pastel eta 'cava' ekarri. Aupa, **Julen**!

Maiatzaren 23an Oromiñoko **Angel Loroño**ren urtebetetzea izan zen. Musu bat asko maite duen familiaren partez. Askoz gehiago bete ditzazula.

Gu ez ga inoz zutaz ahazten… Zorionak, **Christian**!

Zorionak **Katixa**! Iadanik 4 urte! Familia eta lagun artean ospatuko dugu zure eguna! Mosu handi bat etxekoen partez. Maite zaitugu!

Aurtengo argazkia be motorrien. Oinguen be librau za. Zorionak, **Puce**, eta asteburuen trago bat zure konture!

Zorionak, **Ekain**, Bizkaiko mahai-tenis txapelketa irabazteagatik. Zorionak, txapeldun!

## Eguraldia

| | | |
|---|---|---|
| ZAPATUA 14° / 28° | ASTELEHENA 13° / 24° | EGUAZTENA 14° / 23° |
| DOMEKA 14° / 26° | MARTITZENA 13° / 24° | EGUENA 13° / 27° |

# "Herriko Taberna utzita, niretzat eta ilobentzat denbora izango dut"

Ana Zendoiak Izurtzako Herriko Taberna eraman du azken 32 urteetan, eta maiatzaren 31 azken eguna izango du tabernako barraren atzealdean. Oso pozik aritu dela lanean esan du eta eskertuta dagoela urte guzti hauetan izandako bezeroekin

Ana Zendoia Arrizabalaga
Ostalaria
VILLABONA | 1965

IZURTZA • AITZIBER BASAURI

**Ana Zendoiak lau hamarkada eman ditu tabernan lanean. Villabonan lehenengo, eta Izurtzan ondoren. Gustuko lana duela dio, baina erretiroa hartzeko ordua heldu zaio. Hunkituta, bezeroei eskerrak emateko aprobetxatu du.**

**Erretiroa hartzea erabaki duzu. Zeintzuk sentsazio dituzu?**

Sentsazio arraroak. Pozik nago, baina pena ere ematen dit. Baina bizitzaren legea da. Urte asko dira eta nekatuta nago. Beste era bateko bizimodua izango dut orain: ilobak eskolara eraman, haiei errieta apur bat egin, eurekin barre egin ere bai… Neuretzat eta ilobentzat denbora gehiago izango dut. Loreak asko gustatzen zaizkit eta horretan arituko naiz; ortu txiki bat ere ipiniko dut.

**Zer izan da zuretzat Izurtzako Herriko Taberna?**

Neure etxea izan da [hunkituta].

**Izurtzan jarraituko duzu.**

Bai. Behinola Durangon bizi izan ginen zati batean, tabernan konponketa batzuk egin behar zirelako. Pisuan itolarria sortzen zitzaidan. Gurago dut Izurtzan, etxetxo batean, kalera irteteko aukeragaz.

> ***Orain ea zer gertatuko den galdetzen didate bezeroek, ea tabernak orain arteko moduan jarraituko duen***

**Zer esan dizuete bezeroek?**

Orokorrean, poztu egiten dira nigaitik. Baina orain zer gertatuko den galdetzen didate, gu joanda ea nor etorriko den, ea tabernak orain arteko moduan jarraituko duen. Ez dakigu nor etorriko den, urdaiazpikoa aldatuko duen ala ez, zer eskainiko duen… etortzen denak zorte ona izan dezala.

**Leku askotatik etortzen dira Izurtzara urdaiazpikoa jatera.**

Bai. Gasteiztik, Zornotzatik, Eibarretik, Durangotik... Inguru honetan ezagunak garela esango nuke. Urdaiazpikoa, solomoa, gazta... errazioak eskaintzen ditugu. Gu etorri ginenean halantxik egiten zuten tabernan, eta berdin jarraitzea erabaki genuen. Orain ez dakigu zer gertatuko den.

**Taberna elkargune inportantea da herritarrentzat?**

Izurtza lako herri txiki batean beste poztasun bat ematen du tabernak. Itxita dagoenean, herriak tristura apur bat ematen du, inor ere ez dabil eta. Ez dago dendarik, ez dago leku bat apur bat egotera joateko. Bada, inor ez egonda ere, taberna zabalik badago, argia isiotuta, ematen du herrian badela zerbait.

> ***Izurtzaren moduko herri txiki batean beste poztasun bat ematen du tabernak. Itxita dagoenean, herriak tristura apur bat ematen du***

**Suhiagaz partekatzen duzu lana. Ondo konpontzen zarete?**

Bai! Noizbehinka katramila batzuk izaten ditugu, baina ondo konpontzen gara.

**Tabernako barra konfesatoki bategaz konparatu izan duzu.**

Halantxik da. Eta isilik egon behar da. Tabernariak abade zaharrak gara. Barraren atzean gauza asko ikusten da, onak, txarrak… Askotan esan didate 'zuk jakingo duzu ba...'

**Beti lan egin duzu tabernan?**

Bai, beti gustatu zait. Gozotegi batean lan egin gura nuela esaten nuen umetan, pastelak izugarri gustatzen zaizkit eta. Bestela, diskoteka edo pub batean, musika ipintzeko. Azkenean, tabernan hasi nintzen lanean, Villabonan, senarragaz. Gero Izurtzara etorri ginen.

**Aldaketa handia izan zen?**

Bai, baina nahiko ondo moldatu naiz. Oso pozik nago Izurtzan. Taberna utziko dut baina pozik nago, bertan geratuko naizelako. Tabernara bisitan etorriko naiz.